

ELIKADURA ARAZOEI BURUZKO NAZIOARTEKO I. BILTZARREKO ADITUEK ONDORIOAK PLAZARATU DITUZTE

Anorexiaren eraginaz azterketa zehatza egiteko eskatu diete agintariei adituek

■ Anorexia eta bulimiaren benetako eragina zehaztea aldarrikatzen dute, elikadura arazoei modu eraginkorrean aurre egiteko.

■ Psikoterapia eta famili terapiari lehentasuna ematen dieten unitate espezializatuak edo eguneko zentroak eratzeko eskatzen dute.

■ Terapia egokiarekin kasuen %70 eta %75aren bitartean sei hilabete eta urtebete arteko epean sendatu egiten direla diote.

Gorane Agirre / Bilbo

ELIKADURA arazoen eraginari buruzko azterketa epidemiologiko serio eta zehatza egiteko eskatu diete osasun agintariei egunotan Bilbon egin den Elikadura Arazoei-buruzko Nazioarteko I. Biltzarreko adituek.

Adituek adierazi dutenez, «anorexia eta bulimia kasuen benetako eragina zein den zehaztuz, arazo hauei era eraginkorrean aurre egiteko baliabideak martxan jar daitezke».

Biltzarrean parte hartu duten adituek plazaratutako ondorioetan jasotzen denez, ez da kaltetuen kopuru erreala ezagutzen, eta horrek arazoiari aurre egiteko bitartekoak jartzea saihesten du.

Elikadura arazoak patologia mediko bat ez diren heinean, tratamendu farmakologikoak eraginkorrak ez direla azpimarratu zuten adi-tuok. Beren esanetan, «tratamenduak batez ere psikologikoa behar du izan, eta tratamendu horiek eskaintzen dituzten profesionalak jarraitu beharreko eredu terapeutikoetan behar dute trebatuak eta kualifikatuak egon».

Era berean, gaixoaren familiaren partaidetza duten terapiak eraginkorragoak eta azkarragoak direla nabarmendu zuten. «Familiak», gehitu zuten, «ez dira elikadura arazoen errudun, baina beren lankidetza tresna oso baliagarria da».

Unitate espezializatuak

Anorexia eta bulimia tratatzeko unitate espezializatuak edo eguneko zentroak eratzearen alde agertu ziren nazioarteko aditu horiek. Unitate horietan ondo koordinatutako tratamendu multidiziplinarrak eskaini eta psikoterapeuten lanari eta familia terapiari lehentasuna ematearen garrantzia nabarmendu zuten, kaltetuen sendatzea bermatzeko.



JAGOBIA MANTEROLA

Anorexia eta bulimia zerk eragiten dituen oraindik ez dakitenez, arazoa modaren auzira ezin dela mugatu ohartarazi dute adituek.

Diagnostiko goiztiarra eta aipaturiko ezaugarriak betetzen dituen tratamendu egokiarekin, sei hilabete eta urtebete arteko epean anorexia eta bulimia kasuen %70 eta %75 bitartean sendatu egiten direla azpimarratu zuten. Horrela izan ezean, kasuen %25ean gaitza kroniko bihurtzen da, eta ingratzen dituztenen %20 hil egiten dira.

Elikadura arazoak era egokian tratatzeko mekanismoak honakoak dira: lehen mailako prebentzio kanpainak garatzea, arazootan adituak diren psikoterapeuten trebaketa, edota gaixotasun horiek tratatzeko zentro espezializatuak zabaltzea.

Anorexia eta bulimia zerk eragiten dituen oraindik ezezaguna denez, modaren auzira mugatu ezin dela ohartarazi zuten adituek. Beren hitzetan, «egora larriak dira, eta era azkar eta egokian tratatu behar dira tratamenduen arrakasta bermatzeko».

«Beste patologia psikiatriko bat dira»

EUSKO JAURLARITZAKO Osasun Saila elikadura arazoak tratatzeko unitate espezializatuak eratzearen alde ez dagoela adierazi zion Alvaro Iruinek, Jaurlaritzako Buruko Osasun zuzendariak, EGUNKARIARI. Besteak beste, «elikadura arazoak beste patologia psikiatriko bat» direlako.

Iruinek azaldu zuenez, «ezin ditugu gaixo psikiatrikoen taldeak bereiztu. Elikadura arazoen patologia sistema psikiatrikoaren barruan dago, eta gure errolden arabera, gaixo guztien %2 baino ez dira elikadura arazoak dituztenak».

Edonola ere, Osasun Sailak elikadura jokabideen tratamendurako azpiprograma trinkoa eskaintzen duela eta alor horretan dagoeneko 80 milioi pezeta (3 milioi libe-

ra inguru edo) inbertitu dituela nabarmendu zuen Iruinek.

Programa trinko eta multidiziplinar hori medio, elikadura arazoak dituzten gaixoen gainontzeko gaixo psikiatrikoek baino askoz kontsulta gehiago izaten dituztela azaldu zuen osasun arduradunak.

Aldi berean, programa horretako profesionalak elikadura arazoen gaiari bakarrik dedikatzen direla nabarmendu zuen, «metadonaprograman izan ezik, psikiatriaren beste alorretan gertatzen ez den bezala».

Elikadura jokabideen tratamendu programa horretan eskaintzen den tratamendua multidiziplinarra dela azaldu zuen. Halaber, terapia indibidual edo kognitiboa, terapia farmakologikoa,

talde terapia eta familiekiko lana jorratzen ditu.

Bestalde, Osasun Sailak eta kaltetuen elkarteek elikadura arazoen kasuez ematen dituzten datu erabat ezberdinen arrazoia «anorexia edo bulimia elikadura arazoen sintometako batzuekin nahastea» dela nabarmendu zuen Iruinek.

Ildo beretik, «kasuen kopuruen dantza» horretan, elikadura arazoen auzia hiesa bezalako epidemia batekin parekatzeko dagoen gizarite interesa ere gaitzetsi zuen, horrelako epidemiarik egun ez dagoela azpimarratuz.

Dena dela, Osasun Sailak elikadura arazoen eraginari buruzko azterketa epidemiologiko zehatzik egin ez duela onartu zuen Buruko Osasun zuzendariak.